

ITTEN, HERRIEKIN LAN EGITEN, S.A.

IKUSKARITZA TXOSTENA

**2014KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIARI DAGOZKION
URTEKO KONTUAK ETA KUDEAKETA TXOSTENA**

Sayma Auditores, S.L.
Avda. de la Libertad, 10 · 7º
20004 Donostia · San Sebastián
Tel: 943 44 01 30 Fax: 943 44 01 37
E-mail: auditores@sayma.es www.sayma.com

Ikuskaritza txosten bertsio hau Espainian indarrean dauden ikuskaritzako arauak ezarritako ikuskaritza txostenaren ereduaren itzulpena da. Desadostasunak egonez gero, gazteleraz igorritako bertsioa lehenetsiko da.

URTEKO KONTUEN IKUSKARITZA TXOSTENA

Sozietatearen Akziodunari,

ITTEN, HERRIEKIN LAN EGITEN, S.A.

Urteko kontuei buruzko txostena

1. **ITTEN, HERRIEKIN LAN EGITEN, S.A.** Sozietatearen urteko kontuak ikuskatu ditugu. Urteko kontu hauek, 2014ko abenduaren 31ko balantzeak, eta aipatutako datan bukatutako ekitaldiari dagozkion galdu-irabazi kontuak, ondare garbiaren aldaketen egoera-orriak, diru-fluxuen egoera-orriak eta memoriak osatzen dituzte

Administratzaileek urteko kontuengain duten erantzunkizuna

2. Administratzaileen erantzunkizuna da atxikita doazen urteko kontuak burutzea, hauek **ITTEN, HERRIEKIN LAN EGITEN, S.A.** -ren ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitzen irudi fidela islatzen dutelarik, Espainian sozietateari aplikagarri zaion finantza-informazioari buruzko araudiarekin bat etorritik (atxikituriko memoriako 2. oharrean aipatzen dena), eta iruzur edo errakuntzen ondorioz hutsegite esanguratsurik gabeko urteko kontuak prestatu ahal izateko beharrezkotzat jotzen duten barneko kontrolarekin bat etorritik.

Ikuskariaren erantzunkizuna

3. Gure erantzunkizuna, gure lanean oinarrituz atxikitako urteko kontuei buruzko iritzia ematea da. Gure lana, Espainian indarrean dagoen ikuskaritzarako araudiarekin bat etorritik burutu dugu. Araudi honek etika eskakizunak bete ditzagun eskatzen du, eta horrez gain, ikuskaritza urteko kontuetan hutsegite esanguratsurik ez dagoelaren arazoizko segurtasun bat lortzeko helburuarekin planifikatu eta burutzea.
4. Ikuskaritza batek urteko kontuetan adierazten diren zenbatekoei buruzko eta bertako informazioari buruzko ikuskaritza ebidentzia lortu ahal izateko beharrezkoak diren prozeduren aplikazioa eskatzen du. Aukeratu diren prozedurak ikuskariaren iritzia baitan daude, iruzur edo akatsen ondorioz urteko kontuek eduki ditzaketan hutsegite esanguratsuei buruzko arriskuen balorazioa barne. Arriskuen balorazio hauek burutzeko orduan, ikuskariak entitateak urteko kontuak formulatzeko aintzat hartu duen garrantzizko barne kontrola kontutan hartzen du. Honen helburua, egoera ezberdinen arabera egokiak diren ikuskaritza prozedurak diseinatzea da, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko

iritzi bat ematea. Hortaz gain, ikuskaritza baten bitartez, aplikatu diren kontabilitate-politiken egokitzapenaren ebaluazioa eta zuzendaritzak burutu dituen estimazioen arrazonamendua burutzen dira, eta baita urteko kontuak bere osotasunean hartuta beraien aurkezpenaren ebaluazioa ere.

5. *Lortu dugun ikuskaritza ebidentziak salbuespenekiko gure ikuskaritza-iritzia emateko oinarri nahikoa eta egokia ematen digula kontsideratzen dugu*

Salbuespenekiko iritziaren oinarria

6. *Atxikita doazen Urteko Kontuetan adierazten den bezala, hauek 2015ko martxoaren 27an formulatuak izan direlarik, administratzaile baten sinadura falta da. Ez da zehazten espreski sinadura falta honen zergatirik, Kapital Sozietateen Legearen Testu Bateratuaren 253. artikuluan ezartzen den bezala.*
7. *Atxikitzen den Balantzearen Izakinen atalean, 21.444.592 eurotako narriadura atal bat agertzen da kontabilizaturik. Narriadura hau 2013. ekitaldiko apirila eta maiatza hilabeteen bitartean tasatzaile independente batzuk burutu zuten balioespen batean oinarrituz erregistratu zen. Txosten honen sinadura datan, ez daukagu 2014ko abenduaren 31 datara, ez eta 2013ko abenduaren 31 datara, aurrez komentatutako Izakinen atala osatzen duten elementu ezberdinen baliospen eguneraturik, eta gainera ezin izan dugu beraien baliospena egiaztatzeko ikuskaritzako ordezkari prozedurarik burutu ahal izan. Ondorioz, 2013ko abenduaren 31 datara ez dugu beraien balio zehatza ezagutzen. Haren ondorio bezala, 2013. ekitaldiko urteko kontuei buruzko gure ikuskaritza-iritziak gai honen inguruan salbuespen bat adierazi zuen.*

Iritzia

8. *Gure iritziak, "Salbuespenekiko iritziaren oinarria"-ko aurreko 6. paragrafoan adierazitakoaren eta 7. paragrafoan deskribatu diren gertaerek ekar ditzaketan ondorioen eraginagatik izan ezik, txosten honekin batera aurkeztutako 2014. urteko kontuek, arlo esanguratsu guztietan, 2014.eko abenduaren 31n ITTEN, HERRIEKIN LAN EGITEN, S.A. Sozietatearen ondarearen, egoera finantzarioaren eta data horretan bukatu den ekitaldiari dagozkion eragiketen emaitzen eta diru-fluxuen irudi fidela adierazten dute, orokorrean informazio finantzarioari aplikagarria zaion legeriaren arabera, bereziki, kontabilitate-printzipioekin eta arauekin.*

Beste lege eta arau-eskakizun batzuei buruzko txostena

9. Atxikita doan 2014ko kudeaketa txostenak, enpresaren egoera, bere negozioen bilakaera eta beste zenbait arlori buruz Administratzaileen ustez egokiak diren azalpenak barneratzen ditu, eta ez dago urteko kontuen barne. Aipatutako kudeaketa txostenak barneratzen duen kontabilitate informazioa, 2014. ekitaldiko urteko kontuetakoekin bat datorrela egiaztatu dugu. Gure lana auditore bezala, kudeaketa txostenaren azterketaren egiaztapenera mugatzen da, paragrafo honetan aipatutako eremuarekin egingo dena, eta ez du Sozietatearen kontabilitate erregistroetatik lortutakoarekiko ezberdina den informazioaren berriskupenik barneratzen.

SAYMA AUDITORES



Sin. Andoni Arzallus Mendiluce

Donostia, bi mila eta hamabosteko apirilak bat.

ITTEN, HERRIEKIN LAN EGITEN, S.A.

INFORME DE AUDITORÍA INDEPENDIENTE

**CUENTAS ANUALES E INFORME DE GESTIÓN
CORRESPONDIENTES AL EJERCICIO TERMINADO
EL 31 DE DICIEMBRE DE 2014**

INFORME DE AUDITORIA INDEPENDIENTE DE CUENTAS ANUALES

Al accionista de

ITTEN, HERRIEKIN LAN EGITEN, S.A.

Informe sobre las cuentas anuales

1. Hemos auditado las cuentas anuales adjuntas de la sociedad **ITTEN, HERRIEKIN LAN EGITEN, S.A.**, que comprenden el balance al 31 de diciembre de 2014, la cuenta de pérdidas y ganancias, el estado de cambios en el patrimonio neto, el estado de flujos de efectivo y la memoria correspondientes al ejercicio terminado en dicha fecha.

Responsabilidad de los administradores en relación con las cuentas anuales

2. Los administradores son responsables de formular las cuentas anuales adjuntas, de forma que expresen la imagen fiel del patrimonio, de la situación financiera y de los resultados de **ITTEN, HERRIEKIN LAN EGITEN, S.A.**, de conformidad con el marco normativo de información financiera aplicable a la entidad en España, que se identifica en la Nota 2 de la memoria adjunta, y del control interno que consideren necesario para permitir la preparación de cuentas anuales libres de incorrección material, debida a fraude o error.

Responsabilidad del auditor

3. Nuestra responsabilidad es expresar una opinión sobre las cuentas anuales adjuntas basada en nuestra auditoría. Hemos llevado a cabo nuestra auditoría de conformidad con la normativa reguladora de la auditoría de cuentas vigente en España. Dicha normativa exige que cumplamos los requerimientos de ética, así como que planifiquemos y ejecutemos la auditoría con el fin de obtener una seguridad razonable de que las cuentas anuales están libres de incorrecciones materiales.
4. Una auditoría requiere la aplicación de procedimientos para obtener evidencia de auditoría sobre los importes y la información revelada en las cuentas anuales. Los procedimientos seleccionados dependen del juicio del auditor, incluida la valoración de los riesgos de incorrección material en las cuentas anuales, debida a fraude o error. Al efectuar dichas valoraciones del riesgo, el auditor tiene en cuenta el control interno relevante para la formulación por parte de la entidad de las cuentas anuales, con el fin de diseñar los procedimientos de auditoría que sean adecuados en función de las circunstancias, y no con la

finalidad de expresar una opinión sobre la eficacia del control interno de la entidad. Una auditoría también incluye la evaluación de la adecuación de las políticas contables aplicadas y de la razonabilidad de las estimaciones contables realizadas por la dirección, así como la evaluación de la presentación de las cuentas anuales tomadas en su conjunto.

5. *Consideramos que la evidencia de auditoría que hemos obtenido proporciona una base suficiente y adecuada para nuestra opinión de auditoría con salvedades.*

Fundamento de la opinión con salvedades

6. *Tal y como se muestra en las Cuentas Anuales adjuntas, habiéndose formulado las mismas con fecha 27 de marzo de 2015, falta la firma de uno de los administradores, a pesar de haber sido requerido para ello, no habiéndose indicado expresamente la causa de la falta de la misma, tal y como se establece en el artículo 253 del Texto Refundido de la Ley de Sociedades de Capital.*
7. *La partida de Existencias del Activo corriente del Balance adjunto incluye una partida de deterioro por importe de 21.444.593 euros, que fue registrada en base a las valoraciones efectuadas por tasadores independientes durante los meses de abril y mayo del ejercicio 2013. A la fecha, no disponemos de una valoración actualizada al 31 de diciembre de 2014 ni al 31 de diciembre de 2013 de los elementos que componen dicha partida de existencias, ni ha sido posible realizar procedimientos alternativos de auditoría que nos permitan determinar el valor aproximado de las mismas a dicha fecha. Como consecuencia de ello, nuestra opinión de auditoría sobre las cuentas anuales relativas al ejercicio 2013 incluyó una salvedad por esta cuestión.*

Opinión

8. *En nuestra opinión, excepto por los efectos de lo expuesto en el párrafo 6 anterior y los posibles efectos de los hechos descritos en el párrafo 7 anterior de "Fundamento de la opinión con salvedades", las cuentas anuales adjuntas expresan, en todos los aspectos significativos, la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera de la sociedad **ITTEN, HERRIEKIN LAN EGITEN, S.A.** a 31 de diciembre de 2014, así como de sus resultados y flujos de efectivo correspondientes al ejercicio anual terminado en dicha fecha, de conformidad con el marco normativo de información financiera que resulta de aplicación y, en particular, con los principios y criterios contables contenidos en el mismo.*

Informe sobre otros requerimientos legales y reglamentarios

9. El informe de gestión adjunto del ejercicio 2014 contiene las explicaciones que los administradores consideran oportunas sobre la situación de la Sociedad, la evolución de sus negocios y sobre otros asuntos y no forma parte integrante de las cuentas anuales. Hemos verificado que la información contable que contiene el citado informe de gestión concuerda con la de las cuentas anuales del ejercicio 2014. Nuestro trabajo como auditores se limita a la verificación del informe de gestión con el alcance mencionado en este mismo párrafo y no incluye la revisión de información distinta de la obtenida a partir de los registros contables de la Sociedad.

SAYMA AUDITORES



Fdo.: Andoni Arzallus Mendiluce

San Sebastián, a uno de abril de dos mil quince.

ITTEN, HERRIEKIN LAN EGITEN, S.A.

**2014KO ABENDUAREN 31AN BUKATUTAKO EKITALDIARI
DAGOZKION URTEKO KONTUAK ETA KUDEAKETA TXOSTENA**

A handwritten signature or mark, possibly a stylized 'J' or 'I', located on the left side of the page.

ITTEN, HERRIEKIN LAN EGITEN, S.A.

**EGOERAREN BALANTZEA (2 eta 4 OHARRAK)
2014KO ABENDUAREN 3IN BUKATUTAKO EKITALDIA
(Eurotan)**

AKTIBOA	OHARRA	2014	2013	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	OHARRA	2014	2013
A) AKTIBO EZ KORRONTEA				A) ONDARE GARBIA			
I. Ibigetu ukiezina 5 Aplikazio informatikoak	7	6.089.565	6.233.876	A-1) Fondo propioak		23.251.332	23.268.542
II. Ibigetu materiala 1 Lurak eta eraikuntzak 2 Instalazio teknikoak, eta bestelako ibigetu materialak	5	1.600.077 1.561.898 38.179	1.674.630 1.620.392 54.238	I. Kapitala 1 Kapital eskrituraturua	9	21.891.437	21.861.869
III. Ondasun higiezinak inbertsioak 1 Lurak 2 Eraikuntzak	6	4.485.407 624.896 3.860.511	4.543.954 624.896 3.919.058	III. Erreserbak 1 Lege eta estatutu-erreserbak 2 Bestelako erreserbak		21.604.392 21.604.392	21.604.392 21.604.392
B) AKTIBO KORRONTEA				V. Aurreko ekitalditako emaitzak 2 (Aurreko ekitalditako emaitza negatiboak)		257.477 87.356 170.084	257.111 87.356 169.755
II. Izakinak 1 Eskuratuako lursail eta eraikuntzak 2 Lursail eta onubeak 3 Bideango eraikuntzak	10	19.461.954	19.664.736	VII. Ekitaldiko emaitza		29.568	369
III. Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak 1 Bezeroak, salmentengatik eta zerbitzu-emateengatik 3 Hainbat zordun 5 Zerga korrontearen aktiboak 6 Administrazio Publikoekiko bestelako hartzekodunak	9 9 10 10	18.024.147 3.784.840 12.206 14.227.101	18.000.563 3.781.304 12.206 14.207.053	A-3) Hartutako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	14	1.359.895	1.406.673
V. Epe laburreko finantza-inbertsioak 2 Enpreskiko hartzeak	9	57.963 57.963	585.166 585.166	B) PASIBO EZ-KORRONTEA		544.714	609.824
VI. Epe laburreko periodifikatzeak	9	3.413	3.413	I. Epe luzeko hornidurak 5 Bestelako hornidurak	13	-	30.695 30.695
VII. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak 1 Diruzainza	9	1.183.522 1.183.522	744.579 744.579	III. Epe luzeko zorrak 5 Bestelako pasibo finantzarioak	9	15.866 15.866	32.090 32.090
				IV. Zerga geroratuen pasiboak	11	528.848	547.039
				C) PASIBO KORRONTEA		1.755.473	2.020.246
				III. Epe laburreko zorrak 5 Bestelako pasibo finantzarioak	9	55.839 55.839	34.334 34.334
				V. Hartzekodun komertzialak eta ordaintzeko bestelako kontuak 1 Hornitzaileak 3 Hainbat hartzekodun 6 Administrazio Publikoekiko bestelako zorrak	9 9 10	1.699.634 79.006 1.591.700 28.928	1.985.912 302.117 1.576.360 107.435
AKTIBOA GUZTIRA		25.551.519	25.898.612	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA		25.551.519	25.898.612

Irakurri azalpen gisa honekin batera doazen memoriako oharrak

ITTEN, HERRIEKIN LAN EGITEN, S.A.

2

GALERA ETA IRABAZIEN KONTUA (2 eta 4 OHARRAK)
2014KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIA
(Eurotan)

	OHARRA	(Zor) Hartzeko	(Zor) Hartzeko
		2014	2013
A) ERAGIKETA JARRAITUAK			
2. Produktu bukatuen eta fabrikazio-bideko produktuen izakinen aldakuntza		20.048	89.429
4. Hornikuntzak		(20.048)	(89.429)
c) Hirugarrenek egindako obra eta zerbitzuak		(20.048)	(89.429)
5. Ustiapeneko bestelako sarrerak		710.419	585.333
a) Sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko beste batzuk		220.682	157.735
b) Ekitaldiko emaitzan sartutako ustiapeneko diru-laguntzak	14	489.737	427.598
6. Pertsonal-gastuak		(435.484)	(331.048)
a) Soldatak, lansariak eta antzekoak		(322.651)	(243.477)
b) Karga sozialak	12	(112.833)	(87.571)
7. Ustiapeneko bestelako gastuak		(219.984)	(191.075)
a) Kanpoko zerbitzuak		(203.657)	(179.558)
b) Tributuak		(16.326)	(11.517)
d) Kudeaketa arrunteko bestelako gastuak		(1)	
8. Ibilgetuaren amortizazioa		(167.912)	(174.765)
9. Ibilgetu ez-finantzarioko diru-laguntzen eta bestelakoen egozpena	14	64.969	97.456
11. Ibilgetuaren narriadura eta besterentzearen emaitza	5	-	(556)
b) Besterentzeen eta bestelakoen emaitzak		-	(556)
12. Beste emaitzak	12	73.432	13.506
A.1) USTIAPENeko EMAITZA		25.440	(1.149)
12. Sarrera finantzarioak	9	4.128	1.518
b) Balore negoziagarrien eta bestelako finantza-tresnen sarrerak		4.128	1.518
b2) Hirugarren enpresetakoak		4.128	1.518
A.2) EMAITZA FINANTZARIOA		4.128	1.518
A.3) ZERGA AURREKO EMAITZA		29.568	369
17. Mozkinen gaineko zergak		-	-
A.4) ERAGIKETA JARRAITUEN EKITALDIKO EMAITZA		29.568	369
A.5) EKITALDIKO EMAITZA		29.568	369

Irakurri azalpen gisa honekin batera doazen memoriako oharrak

ITTEN, HERRIEKIN LAN EGITEN, S.A.

ONARTUTAKO SARRERA ETA GASTUEN EGOERA
2014KO ABENDUAREN 31IN BUKATUTAKO EKITALDIA
(Eurotan)

	OHARRA	2014	2013
A) Galdututako kontuaren emaitzak		29.568	369
<u>Zuzenean ondare garbira egotzitako sarrerak eta gastuak</u>			
III. Hartutako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	14	-	131.735
V. Zerga-efektua		-	(36.886)
B) Zuzenean ondare garbira egotzitako sarrerak eta gastuak guztira		-	94.849
<u>Galdututako kontura egindako transferentziak</u>			
VIII. Hartutako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	14	(64.969)	(97.456)
IX. Zerga-efektua		18.191	27.288
C) Galdututako kontura egindako transferentziak guztira		(46.778)	(70.168)
KONTABILIZATUTAKO SARRERAK ETA GASTUAK		(17.210)	25.050

Irakurri azalpen gisa honekin batera doazen memoriako oharra

ITTEN, HERRIEKIN LAN EGITEN, S.A.

ONDARE GARBIAREN ALDAKETEN EGOERA-ORRIA
2014KO ABENDUAREN 3IN BUKATUTAKO EKITALDIA
(Eurotan)

	Kapitala	Erreserbak	Aurreko ekitaldietako emaitzak	Ekitaldiko emaitza	Hartutako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	Guztira
A. 2012 URTE-AMAIERAKO SALDOA	41.830.446	257.111	(1.733.863)	(18.492.194)	1.381.992	23.243.492
B. 2013 URTE-HASIERAKO SALDO DOITUA	41.830.446	257.111	(1.733.863)	(18.492.194)	1.381.992	23.243.492
I. Sarrera eta gastu kontabilizatuak guztira				369	24.681	25.050
II. Bazkide edo jabeekiko eragiketak			20.226.054			
2. Kapital gutxitzeak	(20.226.054)		(18.492.194)	18.492.194		
III. Ondare garbiaren bestelako aldakuntzak						
C. 2013 URTE-AMAIERAKO SALDOA	21.604.392	257.111	(3)	369	1.406.673	23.268.542
D. 2014 URTE-HASIERAKO SALDO DOITUA	21.604.392	257.111	(3)	369	1.406.673	23.268.542
I. Sarrera eta gastu kontabilizatuak guztira				29.568	(46.778)	(17.210)
III. Ondare garbiaren bestelako aldakuntzak		366	3	(369)		
E. 2014 URTE-AMAIERAKO SALDOA	21.604.392	257.477		29.568	1.359.895	23.251.332

Irakurri azalpen gisa honekin batera doazen memoriako oharra

ITTEN, HERRIEKIN LAN EGITEN, S.A.

DIRU-FLUXUEN EGOERA-ORRIA
2014KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIA
(Eurotan)

	OHARRA	2014/12/31	2013/12/31
A) USTIAPEN-JARDUERETAKO DIRU-FLUXUAK			
1. EKITALDIKO ZERGA AURREKO EMAITZA		<u>29.568</u>	<u>369</u>
2. EMAITZAREN DOIKUNTZAK		98.886	<u>208.082</u>
a) Ibilgetuaren amortizazioa (+)		167.912	174.765
d) Diru-laguntzen egozpena (-)		(64.969)	(97.456)
e) Ibilgetuaren bajen eta besterentzeen emaitzak (+/-)		-	556
g) Sarrera finantzarioak (-)		(4.128)	(1.518)
k) Bestelako sarrerak eta gastuak (-/+).		71	131.735
3. KAPITAL KORRONTEAREN ALDAKETAK		<u>(212.406)</u>	<u>(777.278)</u>
a) Izakinak (+/-)		(23.584)	(105.453)
b) Zordunak eta kobratzeko bestelako kontuak (+/-)		44.451	88.464
d) Hartzekodunak eta ordaintzeko bestelako kontuak (+/-)		(196.964)	(760.965)
e) Bestelako pasibo korronteak (+/-)		(30.773)	-
f) Bestelako aktibo eta pasibo ez-korronteak (+/-)		(5.536)	676
4. USTIAPEN-JARDUERETAKO BESTELAKO DIRU-FLUXUAK		<u>1.763</u>	<u>16.563</u>
c) Interes-kobrantzak (+)		1.498	1.518
d) Mozkinen gaineko zergen kobrantzak (ordainketak) (+/-)		265	15.045
5. USTIAPEN-JARDUERETAKO DIRU-FLUXUAK		<u>(82.189)</u>	<u>(552.264)</u>
B) INBERTSIO-JARDUERETAKO DIRU-FLUXUAK			
6. INBERTSIOEN ORDAINKETAK (-)		<u>(13.088)</u>	<u>(604.143)</u>
c) Ibilgetu materiala		-	(19.063)
d) Ondasun higiezinetak inbertsioak		(13.088)	-
g) Bestelako aktiboak		-	(585.080)
7. DESINBERTSIOEN KOBRANTZAK (+)		<u>527.203</u>	-
e) Bestelako aktiboak		527.203	-
8. INBERTSIO-JARDUERETAKO DIRU-FLUXUAK		<u>514.115</u>	<u>(604.143)</u>
C) FINANTZAKETA-JARDUERETAKO DIRU-FLUXUAK			
10. PASIBO FINANTZARIOKO TRESNEN KOBRANTZAK ETA ORDAINKETAK		<u>7.017</u>	<u>(310.534)</u>
a) Jaulkipena		7.017	10.140
4. Bestelako zorrak (+)		7.017	10.140
b) Itzulketak eta amortizazioak		-	(320.674)
2. Bestelako zorrak (-)		-	(320.674)
12. FINANTZAKETA-JARDUERETAKO DIRU-FLUXUAK		<u>7.017</u>	<u>(310.534)</u>
E) ESKUDIRUAREN EDO BALIOKIDEEN GEHITZE/GUTXITZE GARBIA			
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi-hasieran		744.579	2.211.520
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi-amaieran		1.183.522	744.579

Irakurri azalpen gisa honekin batera doazen memoriako oharrak

ITTEN, HERRIEKIN LAN EGITEN, S.A.

2014KO ABENDUAREN 31AN BUKATUTAKO EKITALDIARI

DAGOZKION URTEKO KONTUEN MEMORIA

1. JARDUERA

ITTEN, HERRIEKIN LAN EGITEN, S.A., sozietatea, hasiera batean "URNIETA LANTZEN, S.A." eta ondoren "ETORLUR GIPUZKOAKO LURRA, S.A.U.", 1990eko apirilaren 25ean sortu zen Urrietan, egoitza Julio Caro Baroja Enparantza 2, 3 Donostian (Gipuzkoa) duelarik.

Sozietatearen xede soziala da jarduera ekonomikoak, etxebizitzak, eraikinak eta ekipamendu mota oro kokatzeko lurzoria sustatzea, urbanizatzea, erostea eta saltzea, eta baita ere, onura publiko edo pribatukoak izan daitezkeen industria eraikinak, etxebizitza eraikinak, zerbitzuak eta gizarte ekipamenduak sustatzea, proiektatzea, eraikitzea, erostea, saltzea, alokatzea edo beste era batzuetan lagatzea, Gipuzkoaren eta gipuzkoarren mesedetan.

Halaber, bere helburu sozialaren barne egongo da Gipuzkoako Lurralde Historikoko udaletxe eta entitate publikoei, bereziki beren administrazio eta finantza egituran gabezia haundienak dituztenei, aholkularitza zerbitzua eskaintzea beren eskumenekin erlazionatutako gaietan, adibidez, antolakuntzan, hirigintzako kudeaketa eta sustapenean, natura eta paisaiaren babesean; ingurumen kalitatean; energia eraginkortasuna eta ingurumen iraunkortasuna; kudeaketa eta sustapen inbiliariora; eraikinen eraikuntza, mantenua eta birgaitzea edo irisgarritasuna, bai Gipuzkoako Foru Aldundiaren aginduz, edo ta Gipuzkoako Foru Aldundiak sinatutako lankidetza hitzarmenen edo Itten, herriekin lan egiten, S.A. sozietateak udaletxe eta entitate publikoekin sinatutakoen harira. Helburu horrekin, Sozietateak aurrera eraman ahal izango du azterketa, proiektu, txosten eta era guztietako tresnen idazketa, eta baita berauen zuzendaritza eta exekuzioa bere gain hartu ere.

Era berean, bere helburu soziala da Gipuzkoako Lurralde Historikoko udaletxe eta entitate publikoekin elkarlanean aritzea, diruz lagundutako jarduera eta inbertsioen exekuzio eta gauzatzean.

Sozietatearen partehartzailea Gipuzkoako Foru Aldundia da %100ean.


Sozietatea, Gipuzkoako Foru Aldundiaren berezko bitartekoa eta zerbitzu teknikoa da, eta hark mandatuak bidali eta kontratuak adjudika diezazkioke, kasu bakoitzean dagokion organo eskudunek ezarritako moduan eta baldintzetan.

Sozietateak ezin izango du parte hartu Gipuzkoako Foru Aldundiak deitutako lizitazio publikoetan; dena den, lizitatzailerik bakar bat ere aurkezten ez denean, deialdiko xede den prestazioa gauzatzeko eska diezaiolke.

Kapital Sozietateen Legea aplikatu da (indarrean dago 2010eko irailaren 1etik). Haren testu bategina 2010eko uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuak, eta bere ondorengo aldaketak, Merkataritza Kodeak eta xedapen osagarriek onartu zuten.

2. URTEKO KONTUAK AURKEZTEKO OINARRIAK

2.1. Irudi fidela



2014ko ekitaldiko Urteko Kontuak, honekin batera doazenak, Administrazio Organoak formulatu ditu 2014ko abenduaren 31ko Sozietatearen kontabilitateko erregistroetatik abiatuta. Kontuetan Kontabilitate Plan Orokorra eta kontabilitatearen alorrean derrigorrez bete beharreko lege xedapenak onartzeko eman zen 1514/2007 Errege Dekretuan jasotako kontabilitateko printzipio eta balorazio irizpideak aplikatu dira. Beraz, Sozietatearen ondarea, finantza egoera eta emaitzen irudi zuzena eta zehatza ematen dute eta eskudiruaren fluxuen egoeran islatutako fluxuak egiazkoak direla erakusten dute.

Aldi berean, Kontabilitate Plan Orokorra enpresa inmobiliarioetara egokitzeko 1994ko abenduaren 28ko Agindua aplikatu da, indarrean dagoen merkataritza legeriak eta Kontabilitate Plan Orokorrek xedatutakoaren kontra ez doan guztian beti ere.

Honekin batera doazen Urteko Kontuak Akziodun Bakarraren Ohiko Batzar Orokorrera eramango dira onartzeko, eta aldaketarik egin gabe onartuko direla aurreikusten da.

2013ko ekitaldiko Urteko Kontuak 2014ko ekainaren 10an onartu zituen Aziodunen Ohiko Batzar Nagusiak.

2014ko abenduaren 31n, Merkataritzako Kodearen 42. artikulua edukiaren arabera Sozietatea ez zegoen behartuta urteko kontu bateratuak formulatzera.

Bukatzeko, honekin batera doazen urteko kontuetan sartu diren zenbateko guztiak euro unitate osoetan adierazita daude, hobeto ulertu ahal izateko.

2.2. Balorazioaren alderdi kritikoak eta ziurgabetasunaren printzipioa

Sozietatea, bere finantza egoerak prestatzeko funtzionamenduan dagoen enpresaren printzipioan oinarritu da, eta ez dago hurrengo ekitaldiko aktiboen edo pasiboen balioan aldaketa esanguratsuak ekar ditzakeen arrisku garrantzitsurik.

Honekin batera doazen urteko kontuetan, batzuetan Sozietatearen Zuzendaritzak aktibo, pasibo, sarrera, gastu eta konpromiso batzuk kuantifikatzeko egindako estimazioak erabili dira.

Estimazio hauek urteko kontuak formulatu ziren egunean eskuragarri zegoen informaziorik hoberenarekin egin baziren ere, posible da etorkizunean zerbait gertatu eta hurrengo ekitaldian kontuak aldatu behar izatea (gorantz edo beherantz). Hori modu prospektiboan egingo litzateke estimazioen aldaketak etorkizuneko galera eta irabazien kontuetan izango zituen eraginak onartuta.

2.3. Informazioaren alderaketa

Urteko kontuetan, egoeraren balantzeari, irabazi eta galeren kontuari, ondare garbiaren aldaketen egoerari eta diru-fluxuen egoerari dagozkien kontu sailekin batera, 2014ko ekitaldiko zifrez gain aurreko ekitaldikoak ere aurkezten dira, alderaketa egiteko. Era berean, 2014ko ekitaldiari buruzko memoria honetan jasotzen den informazioa 2013ko ekitaldiari buruzko informazioarekin osatzen da, alderaketaren ondorioetarako.

Sozietatea ez dago 2014. eta 2013. urteko Urteko Kontuak ikuskatzera derrigorturik, biak ikuskatuta aurkitzen dira.

2.4. Ingurumena eta berotegi efektuko gasak isurtzeko eskubideei buruzko informazioa

Sozietatearen jarduera zein den kontutan hartuta, beronek ez dauka ingurumenarekin erlazionaturik egon daitekeen eta bere ondare, egoera finantzario eta emaitzarekin alderatuz garrantzitsua izan daitekeen erantzunkizun, gastu, aktibo, ez eta homidura edo kontingentziarik. Horregatik, urteko kontuen memoria honetan ez da ingurumenari dagokion banakapenik sartzen.

Sozietateak ez du berotegi efektuko gasak isurtzeko eskubiderik. Hori dela eta, ez dago halako gasak isurtzeko eskubideekin lotutako eta urteko kontuen memoria honetan jaso beharreko banakatzerik eta kontu sailik, memorian "Berotegi efektuko gasak isurtzeko eskubideei buruzko informazioa" izeneko Ohar berri bat sartzeari buruz Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiaren Ebazpenean, 2010eko apirilaren 6koan, xedatutakoaren arabera.

3. EMAITZAREN APLIKAZIOA

Hauxe da emaitzak aplikatzeko administratzaileek egindako proposamena:

	2014 Ekitaldia
BANAKETARAKO OINARRIAK	
Galera eta Irabazien kontuaren saldoa	29.568
GUZTIRA	29.568
APLIKAZIOA	
Legezko erreserba	2.957
Borondatezko erreserbak	26.611
GUZTIRA	29.568

4. ERREGISTRO ETA BALORAZIORAKO ARAUAK

2014an bukatu den ekitaldiari dagozkion urteko kontuak Kontabilitate Plan Orokorraren arabera formulatu dira eta formulazioan aplikatu diren kontabilitateko irizpide esanguratsuenak hauexek izan dira:

4.1. Ibilgetu ukiezina

Ibilgetu ukiezina, hasieran, bere kostuagatik baloratzen da, eta kostua erosketa prezioa edo produkzio kostua izan daiteke.

Hasierako onarpenaren ondoren, ibilgetu ukiezina baloratzeko bere kostua hartzen da kontuan eta horri metatutako amortizazioa kentzen zaio eta, kasuan kasu, erregistratutako nariadurek eragindako zuzenketengatik metatutako zenbatekoa.

Ibilgetu ukiezin bakoitzerako bizitza erabilgarria aztertu, eta mugatua edo mugagabea den zehazten da.

Bizitza erabilgarri mugatua duten ibilgetu ukiezinak sistematikoki amortizatzen dira, haientzat kalkulaturako bizitza erabilgarriaren arabera eta bere hondar balioaren arabera. Amortizaziorako aplikaturako metodoak eta aldiak ekitaldi bakoitzaren itxieran berrikusten dira eta, hala badagokio, modu prospektiboan doitzen dira. Ekitaldiaren itxieran, gutxienez, nariadura aztamarik dagoen ala ez ebaluatzen da, eta berreskuragarri diren zenbatekoak aurreikusten dira, dagozkion balio zuzenketak eginda.

Ekitaldi honetan ez da aktibo ukiezinak eragindako "nariadurengatiko galera garbirik" onartu.

Ez dago bizitza baliagarri mugagabea duen ibilgetu ukiezinik .

Bereziki, honako irzpidiak aplikatzen dira:

1. Aplikazio informatikoak

Erosketa prezioan edo produkzio kostuan baloratzen dira, kontzeptu horren barruan hauen jabegoa eskuratzegatik edo programa informatiko hauek erabiltzeko eskubideagatik ordaindutako zenbatekoak ere sartzen direlarik.

Aplikazio informatikoak garatzen jardun duten enpresako pertsonen gastuak aplikazio informatikoen kostuetan sartzen dira, kostu horiek handituta, galera eta irabazien kontuko "enpresak bere aktiborako egindako lanak" izeneko epigrafean abonatzen direlarik.

Aplikazio informatikoen amortizazioa modu lineal batean burutzen da, gehienez 5 urteko epean.

Bizitza erabilgarria luzatzea ez dakarten konponketak eta mantentze lanen kostuak, lan horiek egiten diren ekitaldiko galera eta irabazien kontuan kargatzen dira.

4.2. Ibilgetu materiala

Beren eskuratzeko edo produkzio kostuaren bidez baloratzen dira hasieran, eta bertan prezioan edozein deskontu edo murrizketa kendu ondoren fakturaz denaz gain ibilgetua funtzionatzen hasi arte sortutako gastu gehigarri eta zuzenean erlazionatutako guztiak sartzen dira, esaterako berdinketa lanak eta eraispen lanak, garraioa, aseguruak, instalazioa, muntaketa eta beste antzeko lan batzuk. Sozietateak erosketari, eraikuntzari edo produkzioari zuzenean egotzi ahal zaion finantzaketa berezi edo generikoarekin lotutako finantza gastuak sartzen ditu erabili, ustiatu edo saltzeko moduan egoteko urtebete baino gehiago behar duten ibilgetu materialen kostuan. Ibilgetu materialaren zati ere badira desegiteak edo kentzeak dakartzan obligazioen gaur eguneko balioaren hasierako estimazioa eta aktiboarekin lotutako beste batzuk, esaterako birgaitze lanen kostuak, obligazio horiek homidurak erregistratzea badakarte. Era berean, hor sartuta dago zenbateko kontingentearen oraingo balioaren estimazio onena, baina jardueraren garapenarekin lotutako magnitudeen mende dauden ordainketa kontingenteak ez dira zenbatzen gastu gisa galera eta irabazien kontuan haiek gertatzen diren neurrian.

Ibilgetu materialaren ondasunen etorkizuneko erosketen kontura entregatutako zenbatekoak aktiboan erregistratuko dira eta aurrerakinari lotutako aktiboaren balioaren eguneraketa dela eta sortzen diren doiketek finantza sarrerak aitortzeko aukera ematen dute haiek sortzen diren neurrian. Helburu horietarako, hasierako uneko hornitzailearen igoerako interes-tasa erabiltzen da; hau da, hornitzaileak jasotako zenbatekotik eratorritakoen baliokideak diren baldintzetan finantzaketa lortu ahal izango lukeen interes-tasa eta hori ezingo da aldatu hurrengo ekitaldietan. Urtebete baino gutxiagoko epemuga duten eta haien finantza efektua esanguratsua ez den aurrerakin kasuan, ez da beharrezkoa eguneraketarik egitea.

Sozietateak ez dauka bere aktibo ondasunak desegiteko, kentzeko edo birgaitzeko konpromisorik. Horregatik ez dira aktiboetan kontabilizatu etorkizuneko obligazio horiek estaltzeko balioak.

Hasierako onarpenaren ondoren, hornikuntzari lotutako finantza deskontuaren itzulera kontabilizatu egiten da galera eta irabazien kontuan, eta pasiboaren balioa doitu egiten da hasierako onarpenean edo azken berrikusketako datan aplikatutako interes-tasaren arabera. Bestalde, ibilgetu materialaren hasierako balorazioan aldaketak izan daitezke desegiteko eta birgaitzeko kostuei lotutako hornikuntza zenbatekoa aldaraziko luketen kontabilitateko estimazioetan izandako aldaketak direla eta deskontuaren itzulera aitortu ondoren. Horiek honako hauek sor ditzakete:

- ✓ Desegitearekin edo birgaitzearekin lotutako betebeharra baliogabetzeko estimatutako eskudiruaren fluxuen zenbatekoan edo egutegian gertatutako aldaketa.
- ✓ Sozietateak hasiera batean arriskuko interes libreko tasa den hornikuntzaren oraingo balioa zehazteko erabiltzen duen deskontua, eskudiruaren fluxuak kalkulatzeko garaian, betebeharra betetzearekin lotutako arriskua kontuan hartu ez denean izan ezik.

Sozietatearen administratzaileen ustez aktiboen kontabilitateko balioa ez da beraien balio errekupegarria baino handiagoa.

Ibilgetu materialeko elementu baten balioan egondako nariadurak eragindako galera erregistratzeko, elementu horren kontabilitateko balio garbiak bere balio errekupegarria baino handiagoa izan behar du, balio errekupegarria arrazoizko balioari salmentako kostuak kenduta ateratzen denaren eta erabilera balioaren arteko zenbatekorik handiena dela ulertuta.

Sozietateak egindako obrak eta lanak direla eta ekitaldian zehar izan diren gastuak dagozkien gastuen kontuetan kargatuko dira. Produkzio ahalmena handitzea edo ondasunen bizitza baliagarria luzatzea dakarten handitze edo hobetze lanen kostuak aktiboan gehitzen dira handitutako balio gisa. Uneko ibilgetu materialaren kontuak gastu horien zenbatekoarekin kargatzen dira, Sozietateak berarentzat egindako lanak jasotzen dituen sarreren kontu sailean abonatuta.

Ibilgetu materialeko elementuen amortizazioa modu linealean egiten da hondar balioa nulua izan behar dela aintzat hartuta, kalkulatu zaien bizitza baliagarrian zehar,

funtzionamenduan hasteko prest dauden unetik aurrera hurrengo bitzta baliagarriko urteen arabera:

	Bitzta baliagarriko urteak
Eraikuntzak	30
Makinak	10
Bestelako instalazio teknikoak	6
Altzariak	10
Informazioa prozesatzeko ekipamenduak	5
Garraio elementuak	6
Beste ibilgetu material batzuk	6

Sozietateak ibilgetu gisa bere erabilerarako sustatutako eraikuntzak, galdu-irabazien kontuko kontrakontuarekin aitortzen dira, haien ekoizpen kostuaren arabera.

4.3. Ondasun higiezinetakoko inbertsioak

Sozietateak ondasun higiezinetakoko inbertsioak bezala sailkatzen dituen inbertsioak ondorengoak dira: aktibo ez-korrente higiezinak, errentak, plusbalioak edo biak lortzeko mantentzen direnak, eta ez produzkioren erabiltzeko edo ondasunak edo zerbitzuak hornitzeko, edo administraziorako; edo eragiketen martxa normalean saltzeko erabiltzen direnak; gainera, urteko kontuen formulazio datan, sailkapen honetan sartutako inbertsio hauen gain ez dago desinbertsio planik finkatuta. Horretaz gain, Sozietatearen ondarera sartzen diren momentuan etorkizunerako bere erabilera finkatu gabe daukaten lursail eta eraikuntzak ere atal honetan sailkatzen dira.

Ondasun higiezinetakoko inbertsioetan, ibilgetu materialeko lursail eta eraikuntzei buruz zehaztutako irizpide berak aplikatzen dira, ondoren zehazten direlarik:

Eraiki gabeko lursailak eskuratze-prezioan baloratzen dira, egokitze gastuak gehituz, hala nola, itxierak, lur-mugimendua, saneamendu eta drainatze obrak, solairu berriak eraikitzeko eraiste-gastuak beharrezkoak direnean, inspektzio eta plano altxaketa gastuak erosketa aurretik egiten direnean. Halaber, balio honen barruan sartuko da lursailaren birgaikuntzarako hartutako obligazioen balio eguneratuaren hasierako estimazioa.

Eraikuntzak kostuaren arabera baloratzen dira, eskuratze-prezioan edo produkzio-kostuan, eraikuntzen parte diren instalazio eta elementuak, eraikuntzen berezko tasak eta proiektuaren eta obra-zuzendaritzaren ordainsariak ere barne sartzen direlarik.

Ondasun higiezinetakoinbertsioen amortizazioa modu linealean egiten da, estimatutako bizitza baliagarriko urteen arabera, konkretuki 50 urte, beti ere lursailak izan ezik, hauek ez baitira amortizatzen.

4.4. Errentamenduak

Errentamenduak finantza errentamendu bezala sailkatzen dira, beti ere errentamenduen baldintzei begiratuta errentariari kontratuaren helburua den aktiboaren jabegoari berez dagozkion arriskuak eta onurak funtsezko eran transmititzen zaizkiola esan badaiteke. Gainontzeko errentamenduak errentamendu operatibo bezala sailkatzen dira.

Indarrean dagoen araudiak ezartzen duenez, errentan jarritako ondasunen kostua egoeraren balantzean kontabilizatzeko, kontratuaren helburua den ondasunaren izaerari begiratuko zaio, eta, aldi berean, zenbateko bereko hartzekodun bat ere adieraziko da. Zenbateko hori, errentan jarritako ondasunaren arrazoizko balioaren eta errentamendu hasieran, adostutako gutxieneko zenbatekoaren egungo balioaren arteko baliorik txikiena izango da, saltzeko aukera barne (burutuko denaren arrazoizko zalantzarik ez dagoenean). Bere kalkuluan ez dira sartuko izaera kontingenteko kuotak, zerbitzuen kostua eta errentatzaileari jasanarazi ahal zaizkion zergak.

Eragiketa mota honengatik erregistratutako aktiboak ibilgetu materialen multzo osoari aplikatu zaizkion irizpide berekin amortizatzen dira, beraien izaerari begiratuta.

Finantza errentamenduko kontratuak Sozietatearen aktibo gisa sartu dira zuzenean, eta hartzekoen artean hartzekodunarekin dagoen zorra adierazten da. Interesak gastu moduan sartzen dira zuzenean, dagozkien kuotak likidatu ahala.

Errentamendu operatiboko eragiketetan, errentan jarritako ondasunaren jabegoa eta ondasun horrek funtsean dituen arrisku eta abantaila guztiak, errentatzailearengan gelditzen dira.

Errentamendu operatiboengatiko ordainketak gastu moduan erregistratzen dira galera eta irabazien kontuan, akordio eta kontratuaren bizitza baliagarriaren arabera.

4.5. Finantza tresnak

Jarraian, Sozietateak erregistratutako finantza tresnak eta kalifikatzeko nahiz balioztatzeko erabilitako irizpideak xehatzen dira.

1. Finantza aktiboak

- Merkataritza operazioengatiko kredituak: hainbat bezero eta zordun;
- Kredituak hirugarrenei; esaterako, emandako mailegu eta kreditu finantzarioak, aktibo ez korronteen salmenten bidez lortutakoak bame.
- Beste finantza aktibo batzuk: esaterako, kreditu erakundeetan egindako gordailuak, langileei emandako aurrerakinak eta kredituak, eta eraturako fidantzak eta gordailuak.
- Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk.

Maileguak eta kobratzeko dauden kontuak: beren amortizatutako kostura erregistratzen dira, eta entregatutako eskudiruari dagozkio, ken mailegu printzipaletik egindako itzulkinak, gehi sorrarazitako interes kobratu gabeak maileguen kasuan, eta egindako kontraprestazioaren egungo balioan, kobratzeko kontuen kasuan. Sozietateak, kasuan kasuko homidurak erregistratzeko, kontuan hartzen du kobratzeko dauden kontuetatik berreskuratu behar den zenbatekoaren eta erregistratuta daudeneko kontabilitate balioaren arteko aldea.

Eskudirua eta beste bitarteko likido baliokide batzuk: erantsitako egoera balantzearen epigrafe honenpean erregistratzen dira kutxako eskudirua eta bankuetakoa, ageriko gordailuak eta likidezia handiko epe laburreko beste inbertsio batzuk, kutxan berehala bihurtzekoak direnak eta balioan aldaketarik izateko arriskurik ez dutenak.

2. Finantza pasiboak

- Merkataritza operazioengatiko zorrak: hainbat hornitzaile eta hartzekodun;

- Beste finantza pasibo batzuk: hirugarrenekin egindako zorrak; esaterako, eta hala badagokio, kreditu erakundeak ez diren pertsona edo enpresen eskutik jasotako finantza maileguak eta finantza kredituak, fidantzak eta jasotako gordailuak.

Ordaindu beharreko kontuak: hasieran, beren merkatu kostura erregistratzen dira eta ondoren amortizatutako kostura balioztatzen dira, interes tasa efektiboaren metodoa erabiliz.

4.6. Izakinak

Atal honetan, salmentarako bideratuak dauden lursail, eraikin eta bideango eraikuntzak sailkatzen dira.

Eskuratze preziora edo produkzio kostura balioztatzen dira. Eskuratze prezioa homitzaileak fakturatutako zenbatekoa da, ken deskontuak eta zorren nominalari erantsitako interesak, gehi izakinak salmentan jartzeko gastu gehigarriak: garraioak, muga zergak, aseguruak eta eskurapenari egotz dakizkiokeen beste batzuk. Produkzio kostuari dagokionez, kasuan kasu, izakinak balioztatzeke, lehengaiak eta bestelako gai kontsumigarri batzuen eskurapen kostuari gehitzen zaizkio produktuari zuzenean egotz dakizkiokeen kostuak eta produktuei zeharka egotz dakizkiokeen kostuei dagokien zentzuzko zatia.

Izakinei ezartzen zaizkien zeharkako zergak Herri Ogasunean zuzenean berreskuratu ezin direnean baino ez zaizkie eransten eskuratze prezioari edo produkzio kostuari.

Saltzeko moduan egoteko urtebete baino gehiago behar duten izakinen kasuan, eskuratze prezioan edo produkzio kostuan gastu finantzarioak sartzen dira, aurrez azaldutako ibilgetu materialari buruzko arauekin bat.

Izakinen etorkizuneko homiduraren kontura homitzaileei emandako aurrerakinak beren kostuaren arabera balioztatuko dira.

Izakinen balio bihurtu garbia bere eskuratze prezioa edo produkzio kostua baino txikiagoa denean, egoki diren balioztatze zuzenketa egiten dira eta horiek gastu gisa aitortzen dira galdu irabazien kontuan. Izakinen balioztatze zuzenketa eragin duten

egoerak desagertzen badira, zuzenketaren zenbatekoa itzuli egiten da eta diru sarrera gisa aitortzen da galdu irabazien kontuan.

4.7. Mozkinen gaineko zergak

Zerga arruntagatiko gastua, zerga arruntagatiko gastuari zerga geroratua gehituz kalkulatzen da. Zerga arruntagatiko gastua zehazteko zerga irabaziarri indarrean dagoen karga-tasa aplikatzen zaio, eta bide horretatik lortutako emaitzari hobari eta kenkari orokorrak eta ekitaldian aplikatzen direnak murrizten zaizkio.

Zerga geroratuen aktibo eta pasiboak, denborazko diferentziak dira. Denborazko diferentziak berriz, etorkizunean ordaintzea edo berreskuratzea espero direnak dira eta balorazio kontablearen eta fiskalaren arteko desadostasunetatik sortzen dira. Zenbateko hauek denborazko diferentziari zergaren espero den berreskuratze edo kitatze karga-tasa ezarri erregistratuko dira.

Zerga geroratuen aktiboak, kasuan kasu, aplikatzeko dauden zerga oinarri negatibo eta erabili gabeko kenkari fiskalen ondorioz sortzen dira.

Zerga geroratuen pasiboak, aldiz, zergapeko denborazko diferentzia guztiengatik sortuko dira, diferentzia hoiak ez badira merkataritza-fondo bat hasieran kontabilizatzetik etortzen, edota aktibo edo pasibo bat hasieran kontabilizatzetik, negozio-konbinazioa ez den transakzio baten ondorioz eta transakzio horrek ez badu kontabilitate-emaitza edo zerga-oinarria ukitzen.

Bestalde, zerga geroratuen aktiboak, hau da, zergapeko denborazko diferentziak, kontabilizatu ahal izateko probablea izan behar du enpresak, etorkizunean, aktibo horiek eskuratzeko behar adinako irabazi fiskalak izatea eta ezingo dira aktibo edo pasibo bat hasieran kontabilizatzen denean sortu, negozio-konbinazioa ez den transakzio baten ondorioz eta transakzio horrek ez badu kontabilitate-emaitza edo zerga-oinarria ukitzen.

Gainontzeko zerga geroratuen aktiboak (aplikatzeko dauden zerga oinarri negatiboak eta erabili gabeko kenkari fiskalak) etorkizunean aktibo horiek eskuratzeko behar adinako irabazi fiskalak edukitzea probablea denean soilik kontabilizatuko dira.

Ekitaldi bakoitzaren itxiera-datan, zerga geroratuaren aktibo eta pasibo kontabilizatuak eta kontabilizatu gabeak berraztertzen dira, indarrean mantentzen direla egiaztatzeko helburuarekin, burutu diren azterketen ondorioekin bat, egin beharreko zuzenketak eginez.

Zerga geroratuagatiko gastua edo sarrera kontabilizatzea bat etorriko da zerga geroratuaren aktiboak eta pasiboak kontabilizatzearekin eta hauen kitatzearekin, eta halakorik dagoenean, diru-laguntzaren izaera duten kenkariak eta bestelako onura fiskalak kontabilizatzean sortu den eta zuzenean ondare garbira egotzi den sarrera kontabilizatzearekin eta galdu-irabazien kontura egoztearekin.

4.8. Diru sarrerak eta gastuak

Diru sarrerak eta gastuak sortzapenaren irizpidearen arabera egozten dira, horien ondoriozko moneta korranteak edo finantza korranteak edozein unetan gertatzen direla ere.

Edonola ere, Sozietateak ekitaldiaren amaierarako izandako mozkinak baino ez ditu kontabilizatzen. Aitzitik, aurrez ikus daitezkeen arriskuak eta galerak (balizkoak izan arren) ezagutu bezain laster kontabilizatzen dira.

Ondasunak edo zerbitzuak saltzearen ondoriozko diru sarrerak horietatik eratorrita jaso den edo jasoko den ordainaren arrazoizko balioaren arabera aitortzen dira. Goiz ordaintzeagatiko edo bolumenagatiko deskontuak edo bestelako deskontuak eta kredituaren nominalari erantsitako interesak horien murrizketa gisa erregistratzen dira. Dena den, Sozietateak gehienez ere urtebeteko mugaeguna duten eta kontratuzko interes tasarik ez duten merkataritzako kredituetako interesak ere bame hartzen ditu, esku diruko fluxuak ez eguneratzearen eragina ez denean esanguratsua.

Bezeroei egindako deskontuak horiek egiteko kontuan izan diren baldintzak beteko direla aurreikusten den unean aitortzen dira, salmentagatiko diru sarreraren murrizketa gisa.

Etorkizuneko salmenten konturako aurrerakinak, hala badagokio, jasotako balioaren arabera balioztatzen dira.

4.9. Hornidurak eta kontingentziak

Iraganeko gertakizunen ondorioz sortu diren eta egoera-balantzearen datan existitzen diren obligazioak, hauek Sozietatearen ondareari kalteak ekar ditzaketela, eta hauen zenbatekoa eta kitatzeko epemuga ezagutzen ez direla kontutan hartuta, egoera balantzean hornidura bezala erregistratzen dira, obligazio hau ezeztatzeko beharko den zenbatekoaren ahalik eta zenbatespen onenaren balio eguneratuan.

Obligazioa ezeztatzeko momentuan hirugarren batengandik jasoko den ordainak, ez du zorraren zenbatekoaren murrizketarik suposatzen, hala ere, horrek ez du esan nahi Sozietatearen aktiboan ez denik konbrantzaren eskubide hori isladatu behar, beti ere ordainketa hori jasoko denaren zalantzarik ez baldin badago. Hala ere, aktibo honek ezingo du kontableki erregistratu den obligazioaren zenbatekoa baina handiagoa izan.

4.10. Pertsonal gastuak erregistratzeko eta balioztatzeko erabilitako irizpideak

Sozietateak bere enplegatuentzat erretiroko pentsio plan bat dauka Elkarkidetzeta E.P.S.V.-rekin. Gainontzeko betebeharrak guztiak Estatuaren Gizarte Segurutasunak estaltzen ditu.

Indarreko araudiari jarraituz, kausa justifikaturik gabe kaleratutako langileei kalte-ordainak eman behar zaizkie. Ez dago arrazoi objektiborik kontzeptu horrengehazko hornidura bat kontabilizatzea behartzen duenik.

4.11. Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak

Itzuli behar ez diren kapitaleko diru laguntzak emandako zenbatekoaren arabera balioztatzen dira. Hasiera batean, ondare garbiari zuzenean egotzitako diru sarrera gisa aitortzen dira eta diru laguntza horiekin finantzatzeko aktiboek aldi horretan izaten duten balio galeraren proportzio berean egozten dira emaitzetan, baliorik galtzen ez duten aktiboek kasuan izan ezik, horrelakoak besterentzen diren ekitaldian edo inbentarioan baja ematen zaien ekitaldian egozten dira eta emaitzara.

Diru-laguntzak itzuli beharrekoak diren bitartean, diru-laguntza bihur daitezkeen epe luzeko zorrak moduan kontabilizatzen dira.

Diru laguntzak gastu espezifikoak finantzatzeko ematen direnean, diru sarrera gisa egotziko dira finantzatzen ari diren gastuak sortzen diren ekitaldian.

5. IBILGETU MATERIALA

Hona hemen egoera balantzearen atal honetan izandako mugimendua:

	Lurrak eta eraikuntzak	Instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetu materiala	Guztira
A) 2013 URTE-HASIERAKO SALDO GORDINA	1.693.442	149.555	1.842.997
Gehitzea		19.063	19.063
Irteera,bajak eta murrizketak		(8.666)	(8.666)
B) 2013 URTE-AMAIERAKO SALDO GORDINA	1.693.442	159.952	1.853.394
C) 2014 URTE-HASIERAKO SALDO GORDINA	1.693.442	159.952	1.853.394
Gehitzeak			
Irteerak, bajak eta murrizketak			
D) 2014 URTE-AMAIERAKO SALDO GORDINA	1.693.442	159.952	1.853.394
E) 2013 URTE-HASIERAKO AMORTIZAZIO METATUA	(14.555)	(92.144)	(106.699)
Ekitaldiko amortizazio zuzkidura	(58.495)	(21.680)	(80.175)
Irteera edo bajengatiko gutxitzeak		8.110	8.110
F) 2013 URTE-AMAIERAKO AMORTIZAZIO METATUA	(73.050)	(105.714)	(178.764)
G) 2014 URTE-HASIERAKO AMORTIZAZIO METATUA	(73.050)	(105.714)	(178.764)
Ekitaldiko amortizazio zuzkidura	(58.494)	(16.059)	(74.553)
H) 2014 URTE-AMAIERAKO AMORTIZAZIO METATUA	(131.544)	(121.773)	(253.317)
2014 URTE-HASIERAKO SALDOA	1.620.392	54.238	1.674.630
2014 URTE-AMAIERAKO SALDOA	1.561.898	38.179	1.600.077

Aurreko xehetasunari dagokionez, 1.693.442 eurotako zenbateko gordin guztia eraikuntzei dagokio.

Sozietateak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren jabetzakoa den 35.401 metro karratuko lursail baten gain usufruktu eskubidea du, 2011 urteko urtarilaren 24an hasi eta 30 urteko epean. Bere helburua, bertan agroaldea bat eraiki eta hirugarrenei alokairuan uztea da, baratze-ustiapenerako.

Egoera balantzeko epigrafe honetan, 1.662.741 eurotako zenbateko gordina, goian aipaturiko helburua gauzatzeko orain arte egin diren inbertsioak jaso dira, zehazki negutegiak jartzeko, eta bideango ibilgetu ukiezinetik pasa ziren, obrak 2012 ekitaldiko abendu erdialdean bukatu zirelako.

Inbertsio hauek, 14. oharrean aipatzen diren diru-laguntzekin finantzatu ziren bere osotasunean.

